



ESPERIMENTUA

Gaur esperimentu bat egitea proposatu nahi dizuegu. Honen bidez, haurrek modu dibertigarrian eta ludikoan kolore sekundarioak nola sortzen diren ikas dezakete.

Esperimentu honetan, erabiliko dugun materialaren ezaugarriei esker, ura edalontzi batetik beste batera igaroko da.

✧ **Materialak:**

- Plastikozko edalontziak
- Ura
- Koloratzaile elikagarria (gorria, urdina eta horia)
- Paper xurgatzailea

✧ **Nola egin:**

1. 7 plastikozko edalontzi jarraian kokatu eta lehenengoa, hirugarrena, bosgarrena eta zazpigarrena urez goraino bete behar ditugu.



2. Gehitu 5 tanta koloratzaile **gorri** lehenengoan eta zazpigarren edalontzian. Gehitu 5 tanta koloratzaile **hori** hirugarrenean. Gehitu 5 tanta koloratzaile **urdin** bosgarrenean.

3. Hartu paper xurgatzailea eta erditik tolestu. Egin berriro luzetara. Jar ezazue edalontzi bat beste batekin lotzeko moduan.



4. Gauza bera egin behar duzue edalontzi guztiekin.



Handik gutxira, ikusi ahal izango duzue urarekin zer gertatzen den. Ur margotua paperetik arrastaka hasiko da hurrengo edalontzira ailegatu arte. Bi koloreak hutsik dauden edalontzietan nahastuko dira. Bi orduz utziz gero emaitza ikusi ahal izango duzue.